

ICHAS-ERTZIAN.*



I.

Zeru zabala goibela dago,
 Odeiak duaz aidean,
 Aisea gogor ate ta leio
 Oyuska irriñartean,¹
 Arbolak oker, eta orriak
 Igesi ekaitz aurrean,
 Andrak negarrez ichas aldera
 Eziñ egonik echean...
 Chalopak dira ichasoan ta
 Galerna dago gañean.

II.

Neguko arratsalde otz ta laburrean
 ¿Eztozue ikusi eskale zarra
 Burua makurrik, oñak arrastaka
 Eta eziñ jasorik gorputz argala?

(*) Poesía que ha obtenido *accèsit* en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1891. (Veasepág. 522).

(1) Grietas, hendiduras.

¿Ikusi eztozue, penaz beterikan,
 Ume zurtzik iñoiz, jaberik bage,
 Burutsik, oñutsik, ugarrez betea
 Ta buruaren duiñ, kalerik kale?

Bada, or daguan aldra orretatik
 Unecho batean gelditu leikez
 Agura eskaleak eta ume zurtzak,
 T'alargun tristeak beti negarrez.

—Ara bat!... Bestea!... Badatoz?... diñue
 ¡Iziarko Ama, erruki zaitez;,
 Ichasoko Izar argitsua zara,
 Gugana ekarri egizuz arren!

¡Eztator geiago! Alperrik egozan
 Begiak botiaz ichas aldera
 Agiri ete zan bisutzen artetik
 Chalopa asterrenik gora edo bera.

¡Alperrik! Lanbroa, lausoa ta bitza
 Zan bakar bakarrik ikusten zana,
 Ekaitz indartsua aise eguetan
 Erraz menderatzen ichaso dana...

Isill egozala, isill ta bildurrez
 Kanpai danbadacho ill bat entzuten,⁽¹⁾
 Biotza ebela larri ta saltoka,
 Begiak negarrez, t'ara nun daben

Oñaztarri bizi bildurgarri batek
 Odei zeruko bat urratu oso
 Eta bat batera icharonik bage
 Trumoi gogorraren burrunbada jo.

Ondorean barriz asten da chingorra
 T'euria gogotik zarraparradan,

(1) Existe en los pueblos de la costa bizcaina la piadosa costumbre de cantar durante la tempestad una «Salve» ó un «Miserio» ante alguna devota imágen, para cuyo acto se convoca á los fieles por medio de la campana.

Ta uluaz, chilioz, saltoka igesi
Jendia guztia banakatu zan.

.
¡Dana ez! Bakarrik aitzaren gañean
Gelditu da oraindik emakume bat.
¡Aise-euri tartean zeñ gogorra dagon!
¿Nork artuko ezleuke arri zatitzat?

Begira egizue: aiseak aidean
Bere soiñ ⁽¹⁾ illuna *pli pla* darabill;
Obiratz bateko dirudi bandera,
Aitzian sartua, gorputza makill.

Aise soñuaren tartean itua
Diadar mintsu bat dator beria....
¿Eztozue entzun?... Iño, danok iño...
Diadarrak diño: ¡Neure semia!...

Jausi da andrea zentsuna galduta
Aitzaren gañean oso osorik;
Arri gogor eta ezemaguriak⁽²⁾
Beregan artu dau errukiturik.

¡O! seme bat eukan, seme bat kutuna!
¿Zelan ez zatitu aman biotza?
¡Olatuak bultzan legorrera badau
Bere semearen gorputz illotza! !

III.

¡Jaungoiko itzala! Zuro egintza da gauza guztia
Zuk pustu dozu ikaragarri ekaitz sendua
Zuk dozu indartzen, zuk aidatuten dozu olatua
Zuk dozu sortzen aise, euri, chingor t'edur zuria.
Odei zeruko baltz izugarri keinatzallean⁽³⁾
Egun sentiko eguzki errañu gozuan legez,

(1) «Soiña.—Úsase esta voz en algunos puntos de Bizkaia en significación de «vestido».

(2) «Ezemaguria».—Ingrato.

(3) Amenazador.

Lur barruetan gordeta dagon sutokarian,⁽¹⁾
Gau baketsuan, zeru urdiñeko izarren bidez,
Beti ikusten da toki danetan zure besua
An erakusten zeñ zaran andi ta zeñ altsua.

¿Zergatik, bada, gure Egillea, añ ona izanik
Ipinten dozu Isate orren alisatea
Negar, zispiro, malko samiña ta naigabea
Ereiten sarri mundu onetan? Jauna, zergatik?...
Baña ¿ér diñot! Parkatu egizu galde arrua.
Mundu neurtuko gauzen barririk ezpadot baldin,
Egintza zure sakonen barri ¿zelan nik jakin?
Gu gara egiñak auts piskategaz: ¿zu Jaungoikoa!
Parkatu, Jauna, parkatu egizu nire galdea;
Beti egin bedi guregan zure borondatea.

DOMINGO AGIRRE-KOAK.



(1) Volcan.